



ARTEA ETA TERRORISMOAREN MEMORIA

ARIKETA-ORRIA

BATXILERGOA



CENTRO MEMORIAL DE LAS
VÍCTIMAS DEL TERRORISMO
TERRORISMOAREN BIKTIMEN
OROIMENERAKO ZENTROA

HELBURUAK

- + Terrorismoaren salaketarekin lotutako adierazpen artistikoak ezagutzea.
- + Terrorismoaren biktimekiko jarrera sozialaren bilakaerari buruz GOGOETA EGITEA.

GAITASUNAK

- + Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.
- + Ikasten ikasteko gaitasuna.
- + Gaitasun sozial eta zibikoak.
- + Kontzientzia-gaitasuna eta kultura-adierazpenak.

DENBORALIZAZIOA

Jarduera hau 60 minutuko modulu baterako pentsatuta dago. 40 minutuko bisita museora eta 20 minutuko eztabaida irekia.

BALIABIDEAK

Memorialaren museora bisita presentziala edo birtuala. *La sociedad vasca ante el terrorismo* (2018) liburutik ateratako pasarte baten irakurketa.

EGILEA

Raúl López Romo



Josebaren etxea. Agustín Ibarrolaren eskultura Andoainen.
<https://www.andoain.eus/es/esculturas-murales>

Segur aski, Agustín Ibarrola da terrorismoaren biktimen oroimenaren alde lan gehien egin duen euskal artista. Bere konpromiso zibikoak ondoz ondoko bi mugimendu totalitariori aurre egitera eraman zuen. Lehenik eta behin, frankismoaren aurka sutsu aritu zen: diktadurak espetxeratu egin zuen Espainiako Alderdi Komunistako (PCE) militantziagatik. Ondoren, ETAren aurkako erresistentziaren ikur bihurtu zen. Basta Ya (1999) herri ekimenaren sortzaileetako bat izan zen. Agustín Ibarrolak biktimen omenezko monumentu publiko ugari sortu zituen. Euskal Herrian (Ermua, Gasteiz edo Andoain) zein Espainiaren gainerakoan (Logroño, Alacant edo Santander) ikus daitezke.

Agustín Ibarrolak bere seme Josérekin partekatzen du artearekiko dedikazioa. Biek PCEko militantzia partekatu zuten frankismoan eta trantsizioan, eta Basta Ya 1999tik. Josék aterkiei eta oroimenari buruzko margolan eta eskultura batzuk egin zituen, bere lagun José Luis López de Lacalle lagunaren hilketan oinarrituta (2000), zeina aspaldiko komunista eta Basta Yako kidea baitzen. Joséren hitzetan: "Gertaera bat: benetako lagun baten irudi erreal bat. Gizon baten eta bere aterkiaren irudia da,




José Ibarrola: Memoria. Olio-pintura taula gainean.
Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroa.

putzu gorri eta trinko baten mugan elkarrekin geratu zirenak, umezurtz. Lurrean zabalduta eta haize gupidagabearen menpe kulunkatzen ari den aterkiak, ondoan dagoenaren behin betiko absentsia iragartzen du".

Agustinen monumentu eta Joséren margolan gehienak 2000ko hamarkadaren hasieran sortuak izan ziren, biktimekiko aitortpena handituz zihoan garaian. Ez zen beti horrela izan. Hainbat hamarkadatan isiltasun soziala eta erakundeen abandonua izan ziren nagusi. Antonio Rivera eta Irene Moreno historialariek terrorismoaren eta haren biktimen aurrean euskal herritarrek izan zuten bilakaera aztertu dute, eta, horrekin batera, baita artista ospetsuenetako batzuen ere:

"Agian, gure artista garaikide handien jarraian pertsonifika dezakegu: Chillidaren eta Oteizaren jarraian. Lehenak ETaren aurkako benetako lehen manifestazio bateratu eta masiboaren logotipoa diseinatu zuen, Ajuria Eneko itunaren ondoren Eusko Jurlaritzak 1989ko martxoaren 18an "Bakea orain eta betiko" lelopean deitu zuena. Baina gutxiago gogora ekartzen da Amnistiaren aldeko Gestoren logoa ere



Eduardo Chillidaren "Bakea orain eta betirako" manifestaziorako kartela (1989).

IRADOKITAKO JARDUERA

Agustin eta José Ibarrola, Eduardo Chillida, Jorge Oteiza euskal artista ezagunen izenak dira, eta une jakin batean terrorismoa publikoki salatzea eta biktimengana hurbiltzea erabaki zuten, hobekien egiten zekitenaren bidez: beren artea. Bakoitza bere estiloarekin. Zer desberdintasun identifikatzen dituzu egile horiek terrorismoaren gaia (sinboloak, irudiak, gaiak) jorratzeko moduari dagokionez? Yoyesen hilketak bultzatu zuen Oteiza kanpaina bakezale bateko protagonista izatera. Eta zu, izan al da bereziki hunkitu eta gogoeta egitera bultzatu zaituen atentaturik? Agian, Memorialaren Museoan agertzen direnetakoren bat? Zergatik uste duzu laurogeiko hamarkadara arte ia ez zela terrorismoa salatzeko arterik egon? Aipatutakoez gain, ezagutzen al duzu gai horren inguruan lan egin duen beste artistarik? Iker ezazu, adibidez, egunkarietan binetak egiten zituzten umorista grafikoei buruz. Bila itzazu ere gai horretan aritzen ziren emakumeak.

Idatzi galdera horien erantzunak folio batean, eta, ondoren, parte hartu irakasleak gelan zuzenduko duen eztabaidan.



Jorge Oteizaren kartela, kanpaina bakezale baterako, Yoyesen hilketaren ondoren (1986).

diseinatu zuela 1976an, Donostiako gestorearen kide izan baitzen hurrengo urteko abendura arte. Desadostasunak medio, urte horretan berean alde egin zuen, 1977ko urriaren 15eko Amnistia Legea aldarrikatu ondoren (kartzelak hustu zituen, odol-delituak zituzten presoak barne), gestora aktibo mantendu zelako".

"Bestalde, Oteizak Arantzazuko basilikaren fatxadarako prestatu zuen Pietatea [1968an ETako buruzagi zen] Txabi Etxebarrietaren heriotzak eragiten zion minarekin identifikatzen utzi zuen. Garai hartan elkarrekin lanean ari ziren Oteiza eta Etxebarrieta euskal artearen berpizkunderako manifestu bat egiten. Bada, hogei urte geroago, ETak Yoyes hil zuelako biziki gaitzituta zeuden bakearen aldeko ekintzaile batzuek helarazi zizkioten zirriborroei forma eman zien. Oteizak svastika bat eta nazien kolore beltz, gorri eta zuriak erabili zituen krimen hura salatzeko".